

Getxo >MEETING<



Garatu ezazu ideia bat hainbat bertsiotan.

Edo, bestela esanda, nola bihur ditzaket nire ideiak errealitate?

Otsailaren 28ko Getxo MEETINGeko gakoan berri emango dizugu.

Negozio bat baduzu, ziur egiteko gauza berriak bururatzen zaizkizula. Sarri gertatzen da ideia horiek “nekatu” egiten direla; hau da, horiek aurrera eramateko motibazioa galtzen duzula. Galdetu diozu zure buruari zergatik gertatzen den hori? Agian hartu duen formagatik, gauzatzeko zailegia delako. Hala, ez duzu ikusten ideia aurrera eramateko modu errealistarik. Edo agian bere hasierako forma ahazteko ordua da, zein funtzio betetzen zuen pentsatu behar da.

Agian ikuspuntu berri bat emango dizuten hiru hausnarketa partekatu nahi ditugu zurekin.

1. Ideia zure beharrezanekin bat dator?

Ideia bakoitzak beharrezan bati erantzun behar dio. Produktu berri bat helarazi nahi diozu jendeari? Zure bezeroengan eskari bat antzeman duzu eta horri erantzun nahi diozu? Zuretzako berria den sektore batean bezeroak lortu nahi dituzu? Bada, duzun ideia duzula, pentsatu barruko zein beharrezanekin eragiten dizun ideia horretaz pentsatzea eta ez beste batez.

2. Ideia horrek sortzen dituen onurak eta bere eragina zuk nahi dituzunak al dira?

Gerta daiteke komeni zaizun fokua desbideratzen egotea nahi gabe, eta zuretzat lehentasunik ez duen proposamen bat gauzatzeko saiatzeko ari zaitezke.

3. Duzun ideia hori bihur ezazu galdera, aurrera eramateko modu bat baino gehiago aurkitu ahal izateko.

“Nire zerbitzuak automobilgintzaren sektorera eramateko ideiak nahi ditut”. Esaldi horrek honako galdera hauek ekar ditzake:

a) “Nola eraman ditzaket nire zerbitzuak automobilgintzaren sektorera?”

b) “Nola ikusaraziko diet automobilgintzako enpresei nire zerbitzuak kontratatzeko beharra?

c) “Nola jar naiteke harremanetan automobilgintzaren sektorearekin?”

Idea edo kontzeptu batetik hori aurrera eramateko modu ezberdinak atera ditzakezu; hau da, zerbait gauzatzeko era bakoitza helburu bera lortzeko beste moduengandik oso ezberdina izan daiteke. Martxan jartzen zarenean ere, errealitateak hasierako proposamena beste norabide batzuetara eraman dezake. Gauzatzeko prozesuan, ezusteko detaileekin bete ideiak.

Laburbilduz:

A ideia “nola egin” pentsatzean hainbat ideia ezberdin sor daitezke: A1, A2, A3... Interesgarriena da ideia hori aberastea, betiere bere esentzia edo helburua galdu gabe. Hala, ideiak molekula bat bezala irudikatuz gero, ikusiko dugu horren atomoak beste batzuekin ordeztu daitezkeela. Horrek, azkenean, ideia egingarri, interesgarri eta lehentasunezko bat aukeratzen lagunduko digu.

Badakizu zer dioten Getxo MEETINGi buruz?: “Nire ustez, oasi bat da”, “natorren bakoitzean ekiteko gogoz ateratzen naiz”, “nire estrategiari buruz hausnartzeko neure buruari ematen diodan tarte da”. Hurrengo saiora etorri nahi?

Lekua: Getxo Elkartegia (Ogoño kalea 1, 48930 Areta - Getxo)

Eman izena mezu elektronikoko bidez: getxopro@getxo.eus edo deitu 94 466 01 40 telefono-zenbakira